

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gu IEPA gara eta gure proiektuarekin egunerokotasuneko arazo bat argitzen lagundu nahi diegu gure bezeroei, horretarako erosotasuna, erraztasuna, eskuragarritasuna eta kalitatea eskaintzea da gure helburua. Gure mugikorreko aplikazioak askoren goizeko arazo ohikoena konponduko du, hau da, arropa aukeratzea. Aplikazio honetan, erabiltzaileak datu batzuk sartu beharko ditu (arropa estiloa, taila...) eta armairuko arropa identifikatzeko aplikazioak, jantzi guztiei banan-banan argazkia atera beharko zaie. Horrela, badaki zer duzun armairuan. Honen ondoren, arazorik gabe erabil dezakete bezeroek. Horrez gain, saldu eta erosteko aukera eskaintzen die oso modu eroso batean.

Merkatuan inoiz ikusi ez den programa bat da, horregatik uste dugu arrakasta edukiko duela, jende askok izaten baitu arazo hau. Gaur egun, aplikazio asko daude bigarren eskuko arropak erosteko, baina guk beste funtzio bat gehiago ematen diogu.

Zerbitzu honekin, bezeroari errutina errazagoa egiteaz gain, ingurumena zaintzen dugu. Kontsumismoa murrizten laguntzen dugulako arropa saldu eta erosteko aukerarekin, gainera arropak armairuan ditugula ez ahaztean, erabilpen gehiago ematen diegu, eta horrela, gutxiago erostera behartuta gaude.

Honen funtzionamendua oso erraza izango da. Aplikazioak zure arropa ezagututa, egun horretako planaren arabera aukeratuko dizu, hau da, zure ekintza jarri eta egun horretarako arropa egokiena gomendatuko du. Hautatutako arropa ez bazaio bezeroari gustatzen edo aldatu nahi badu "beste bat" botoiari sakatuta beste bat aurkeztuko dio.



Arropa saltzeko eta erosteko aukera ere egongo da. Horretarako, saldu nahi duzun produktuaren argazkia igo beharko da aplikaziora eta bertan eroslearekin hitz egiteko aukera edukiko dute bezeroek "chat" bidez. Erosteko, berriz, jendeak jarritako iragarkiak ikusteko aukera izango dute eta jakin-mina badute saltzailearekin harremanetan jartzeko ere.